

III B AKTA

Gaia: Euskadik Txile, Peru eta Kolonbian daukan Ordezkaritzaren zerbitzuan jarduteko Goi-Mailako Teknikari/Arduradun Institutuzional baten postua betetzeko hautaketa-prozesua.

Goi-Mailako Teknikari/Arduradun Institutuzional baten postua betetzeko hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen behin-betiko zerrenda eta behin-betiko postuaren esleipena.

Prozesua:

4 faseak amaitu ondoren, Epaimahai kalifikatzaileak, 2018ko ekainaren 15eko Txile, Peru eta Kolonbiako Ordezkararen Ebazpenaren bidez, Goi-Mailako Teknikari/Arduradun Institutuzionalaren lan-postuaren hornidurarako aukeratze-prozesu osoa gainditu duten pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratu zuen, aipatu postua MAYERLY CONSTANZA PINEDA USECHE-ri esleituz behin-behinean.

Ebazpen honen aurka egiteko 10 egun naturaleko epea ezarri zen, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera. Ezarritako epean erreklamaziorik jaso ez delarik, 2018ko ekainaren 27ko Ordezkararen Ebazpen bidez, prozesua gainditu duten pertsonen behin-betiko zerrenda argitaratzeari ekin zaio, lan-postua MAYERLY CONSTANZA PINEDA USECHE-ri esleituz behin-betiko, bere izena Ebazpenean argitaratuz gardentasun irizpidea beteaz beste izangaiek izena Horretarako, postuaren esleipendunari berariazko baimena eskatu zitzaion bere izena prozesuaren Behin-Behineko Ebazpenean eta Azken Ebazpenean argitaratzeko.

Aipatu Ebazpenak ez du bide administratiboa agortzen eta bere aurka interesatuek Gora Jartzeko Helegitea aurkeztu ahalko dute Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Halaber, MAYERLY CONSTANZA PINEDA USECHE-ri 15 egun naturaletako epea ematen zaio eskatu zaizkion jatorrizko agiriak edo fotokopia konpultsatuak aurkezteko, galdegin eta arrazoitzen diren betekizunekin bat egiten duela ziurtatzeko.

Bogotan, 2018ko ekainaren 27an



Rafael Manuel Kutz Garaizabal
Epaimahaiaren burua



Leyre Madariaga Gangoiti
Epaimahaiaren bokala



Rafael Hueso Vicent
Epaimahaiaren bokala eta idazkaria